

BARNEKOTASUNAREN ALDERDIA EDO GAITASUN ESPIRITUALA

Zer da giza barnekotasuna?

Gizaki orok berezkoa du barnekotasunaren alderdia. Gure autokontzientziak, gure emozioek, oroitzapenek, irriek, beldurrek, zalantzek, balio-eskalak... barnekotasuna deitzen dugun eremu konplexu eta bizia osatzen dute. Denok dakigu eremu hori dugula, hainbat gauza gertatzen den itxuretatik harago, leku intimoa, eta, gauza batzuei dagokienez, hurkoenei baizik erakusten ez dieguna.

Barnekotasuna edo espiritualtasuna, geure buruaren alderdirik sakonena –gure eragile nagusiak, sustatzen gaituzten pasioak, idealik intimoenak- bizi izateko gaitasuna da. Gaitasun espiritual, funtsik gabeko bizimoduaren, bizimodu huts eta automatikoaren kontrakoa da. Bere bizitza sakontasunez eta kalitatez bizi duen edozeinek, bere jokaera idealez inspiratzen duenak, bere balioak eta bere izatearen zerumuga itxuratzen duenak, errealitatearik sakonenekin eta immaterialekin hartu-eman duenak... bere gaitasun espiritual bizi egiten du.

Barneko eta kanpoko eremuak

Bere konplexutasuna dela-eta, bere alderdi anitzak direla-eta, askotan beldurra ematen digu gure barnean sartzeak edo ez dakigu ezagunak ditugun barneko eremuetatik harago joaten. Horregatik, zaila iruditu dakiguke gure barnekotasuna lantzea. Baina hori ikasi egin daiteke, entrenatu; posible da gure barruko 'ni' hori antzematea. Gainera, geure barrura jo behar dugu gure jokaera eta aukeren sustraiak bilatzera. Beste era batera esanda, barruko alderdiak ematen dio zentzua eta edukia gure kanpoko alderdiari: gure bizitzari, gure jokaera jakinei, egiten dugunari...

Kanpoko alderdia, beraz, bigarren mailakoa da, ez da behar-beharrezkoa? Ezta gutxiago ere; barneko alderdiari ezin diogu uko egin, baina ezta kanpokoari ere. Ezin gara beti barrura begira bizi. Besteen erreferentzia, besteen lekuan jartzea, ezinbestekoa da pertsonaren eraketan, kanpoko alderdia bada ere, alderdi horretakoa da, gainera, kanpoko gertaerek guregan eragiten duten zirrara.

Beste alde batetik, barruko eta kanpoko alderdiak ez daude elkarren aurka, biek ala biek pertsonaren osagai direlako. Francesc Xabier Martinen esanetan, gauza bat da geure buruarengandik kanpo "gertatzen dena", eta beste bat, "gertatzen zaiguna", kanpotik barrurantz gertatzen dena, guregan eragina duena "zeharkatzen" gaituena hau da guregandik sartzen eta ateratzen dena, gure barrualdea zeharkatuz.

Barnekotasuna, sakabanatzearen eta azaletik bizitzearen aurkakoa da, hau da, azakeria eta arinkeriaren aurkakoa. Arretari, orain aldia lasaitasunez, jarrera harreragilez, esker onez eta eskaintzaz bizitzeko gaitasunari lotuta dago.

Espiritualtasuna eta erlijioa

Barnekotasuna edo alderdi espiritual eta erlijioa edo pertsona sinesteduna izatea ez da gauza bera. Gizakiok gure bizitzaren zentzuaz egiten ditugun galderari (norantz noa?, zer dela-eta bizi naiz?, zertarako da nire bizitza?, zer gertatzen da hiltzean?) lotuta dago alderdi hau. Gizakiaren alderdi sakona da, azaleko alderdiak gainditu egiten ditu eta zentzuzko giza bizitzaren bihotza da. Beraz, alderdi espiritual ez dagokio kristautasunari bakarrik. Erlijio guztien oinarrian da eta denek proposatzen dituzte bideak haren garapen eta hazkunderako.

Sinestedunontzat, barnekotasunaren eremuan gertatzen da Jainkoarekiko bategite pertsonal eta eraldatzailea. Nazareteko Jesusekiko bategite sakon horrek bizitza espiritual hori aldatzen duenean, orduan, bizitza espiritual hori kristautzat jo daiteke.